

[Cast/Eusk] Denuncian en Gasteiz el acoso policial a jóvenes trabajadores, que se ha intensificado

GEDAR :: 13/08/2020

"Nos quieren indefensos ante ellos, desinformados, sin saber qué podemos hacer, dispuestos a aplastar la más mínima insubordinación"

Noticia original en Gedar

<https://gedar.eus/aktualitatea/biolentziaestrukturala/gazte-langileen-aurkako-jazarpen-poliziala-jaietan-areagotu-dena-salatu-dute-gasteizen-araba/>

Traducción A. Bas. para La Haine

Castellano

Varios jóvenes han realizado hoy, 12 de agosto, una rueda de prensa en el cantón de San Marcos del Casco Viejo de Vitoria-Gasteiz (Álava) para denunciar la "violencia policial cada vez más frecuente en nuestro día a día". Y es que, con la excusa de obstaculizar las fiestas de Vitoria, la Ertzaintza ha llevado a cabo en los últimos días importantes operaciones policiales contra personas que se encontraban en la calle a altas horas de la madrugada.

Los comparecientes han subrayado la importancia de hacer frente a este tipo de situaciones, "Ya que si no, nos arriesgamos a integrarnos en nuestro sentido común".

Testimonio de un detenido

Como punto de partida de la denuncia, en rueda de prensa se ha publicado el testimonio de un joven que fue detenido en la madrugada del pasado viernes en Vitoria. Indica que, una vez detenido, fue golpeado varias veces, tanto en la calle como en la comisaría.

Numerosos vehículos de la Ertzaintza accedieron de madrugada a la calle Pintorería, "A gran velocidad", y el joven comenzó a recoger en vídeo lo que estaba ocurriendo, a través del móvil. Fue entonces cuando se dirigieron a él y finalmente lo interceptaron: "Para cuando me di cuenta me pusieron contra la pared y empezaron a decirle que me diera mi móvil. Les dije que no les iba a dar mi móvil, ahí empezaron las palizas, paré el vídeo y les di el móvil. Ahí empezó mi pesadilla".

"Se ponen esposados y estando en mitad de la calle empiezan con amenazas, hablando de mi futuro. Les digo 'no he hecho nada', ellos no saben lo que es eso, se rieron de mí estando ahí en el suelo. Y les pregunté si así tratarían a su hijo. Respuesta: palizas. Por una vez me dicen que me lleven a la comisaría", relata el joven.

El trato también fue violento en la comisaría. De hecho, el detenido ha relatado lo vivido en la comisaría: "Un montón de ertzainas, mientras me desnudaba con provocaciones, tiré ahí mis últimas palabras de la noche, por mi dignidad, estando ahí desnudo. Ahí recibí la última

paliza de mi noche. Les daba igual mi dignidad. Durante la noche van los malos fantasmas y empiezan a aparecer ertzainas que te tratan como a una persona. ¿Qué ha pasado? ".

Tras pasar por la comisaría, los ertzainas trasladaron al joven al juzgado, donde se le celebró un juicio rápido. Se le acusa de "atentado a la policía" con el argumento de "negarse a dejar de grabar". El caso ha quedado visto para sentencia.

"Práctica de degradación"

Los jóvenes reunidos hoy en San Marcos han mostrado su solidaridad con la persona que fue detenida y han subrayado la gravedad de los hechos. Por ello, queremos transmitir toda nuestra solidaridad a todo aquel que ha sido reprimido tanto en este caso como en cualquier otra situación similar ". El acoso policial se ha endurecido notablemente en la última semana en Vitoria. Al parecer, bajo la excusa de motivos relacionados con la COVID-19, los policías han interpuesto 591 denuncias.

"Nos quieren indefensos ante ellos, desinformados, sin saber qué podemos hacer, dispuestos a aplastar la más mínima insubordinación", denuncian. "Un ejemplo de ello es la experiencia de un compañero maltratador que el pasado jueves fue golpeado por una simple grabación policial y trasladado a comisaría".

Actualización de los mecanismos de control

"La militarización de las calles, la violencia gratuita, las provocaciones, el autoritarismo explícito ... Finalmente, estamos hablando de la actualización de los mecanismos de control social de la burguesía".

En este sentido, han explicado por qué se persigue especialmente a los jóvenes trabajadores: "Nos quieren educar en la sumisión a través del miedo, es decir, nos quieren disciplinar en normas que se adapten a sus nuevas necesidades. Y, en ese objetivo, los jóvenes trabajadores jugamos un papel importante, porque seremos nosotros los que seguiremos sosteniendo la maquinaria del sistema, y desde hoy quieren que aprendamos bien cuál es nuestro papel ".

"Creemos que el COVID-19 es una mera excusa ideológica para producir las nuevas condiciones que requiere una crisis social cada vez más profunda".

"Es absurdo explicar estas medidas con la lógica de la emergencia sanitaria, es decir, centradas en criterios de salud, las prácticas autoritarias que allí se están generalizando no se pueden entender. Por ejemplo, ¿qué es lo que cambia a la 01:30 para que, siendo la hora de menor afluencia de personas en las calles, sea necesaria una intervención policial que conduzca a los animales? ", han preguntado.

Defensa de las libertades políticas

"La defensa de las libertades políticas se hace más importante que nunca ante esta clase ofensiva que vivimos. La misma inspección sobre las fuerzas armadas nos ha sido negada a los obreros. Para borrar un vídeo miserable no tienen problemas en hackear nuestro móvil ".

"¡Joven trabajador, no te agaches!".

Euskera

Hainbat gaztek prentsurrekoak egin dute gaur, abuztuak 12, Gasteizko (Araba) Alde Zaharreko San Markos kantoian, hiriko jaien testuinguruan gogortu den arren, "gure egunerokotasunean gero eta ohikoago egiten ari den bortizkeria poliziala salatzeko". Izan ere, Gasteizko jaiak oztopatzeko aitzakiarekin, Ertzaintzak polizia-operazio handiak gauzatu ditu azken egunotan, goizaldeko ordu txikietan, kalean zeuden pertsonen aurka.

Horrelako egoerei aurre egitearen garrantzia azpimarratu dute gaurko agerraldian bildu direnek; "bestela, gure sen komunean txertaturik geratzeko arriskua aurreikusten baitugu".

ATXILOTU BATEN TESTIGANTZA

Salaketaren abiapuntu modura, prentsurrekoan, joan den ostiral goizaldean Gasteizen atxilo eraman zuten gazte baten testigantza argitaratu dute. Aditzera eman du, behin atxilotuta, zenbait aldiz jipoitu zutela, kalean nahiz komisaldegian.

Ertzaintzaren ibilgailu ugari Pintoreria kalera sartu ziren goizaldean, "abiadura handian", eta gertatzen ari zena bideoan jasotzeari ekin zion gazteak, mugikorraren bidez. Orduan jo zuten harengana, eta azkenean, atzman egin zuten: "Konturatu nintzenerako parearen aurka jarri ninduten eta nire mugikorra emateko hasi ziren esaten. Ez niela nire mugikorra eman behar esan nien, hor hasi ziren jipoia, bideoa gelditu eta eman nien mugikorra. Hor hasi zen nire amesgaiztoa".

"Eskuburdinak jarri eta kale erdian egonda mehatxuekin hasten dira, nire etorkizunaz hitz egiten. 'Ez dut ezer egin' esaten diet, haien ez dakite zer den hori, nitaz barrez hasi ziren hor lurrean egonda. Eta ea horrela tratatuko zuten haien semea galdetu nien. Erantzuna: jipoia. Behingoz esaten didate komisaldegira eramango nautela", kontatu du gazteak.

Komisaldegian ere bortitza izan zen tratua. Hain zuen, halaxe azaldu du atxilotuak ertzainetxeen bizitakoa: "Ertzain mordoa, probokazioekin biluzten nintzen bitartean, hor bota nituen nire gaueko azken hitzak, nire duintasunagatik, hor biluzik nengoela. Hor jaso nuen nire gaueko azken jipoia. Berdin zitzaien nire duintasuna. Gauean zehar mamu txarrak joaten dira eta pertsona bat bezala tratatzen zaituzten ertzainak hasten dira agertzen. Zer gertatu da?".

Komisaldegitik igaro ostean, gaztea epaitegira eraman zuten ertzainek, eta epaiketa azkarra egin zioten. "Poliziari atentatua" leporatzen diote, "grabatzeari uzteari uko egin izana" argudiotzat hartuta. Epaiaren zain geratu da auzia.

"MAKURRARAZTEKO PRAKTIKA"

Gaur San Markosen elkartu diren gazteek elkartasuna adierazi diote atxilotua izan zen pertsonari, gertakarien larritasuna azpimarratzeaz gain: "Bereziki larria iruditzen zaigu, babesgabetasun egoera osoan, makurrarazteko praktika koldar hauen erabilpena.

Horregatik, elkartasun osoa helarazi nahi diogu bai kasu honetan bai tankerako beste edozein egoeratan erreprimituza izan den orori". Jazarpen poliziala nabarmen gogortu da Gasteizen azken astean. Antza, COVID-19ari lotutako arrazoien aitzakiapean, 591 salaketa jarri dituzte poliziek.

"Haien aurrean babesgabe nahi gaituzte, desinformaturik, zer egin dezakegun jakin gabe, insubordinazio txikiena zanpatzeko prest", salatu dute. "Horren adibide dugu aurreko ostegunean polizia grabatze hutsagatik jipoitu eta, komisaldegira eraman ostean, tratu txarrak jasan dituen kidearen esperientzia".

KONTROL-MEKANISMOEN GAURKOTZEA

Testigantza horrek jasotzen dituen gertakariak ez dituzte ausazkotzat edo isolatutzat jo agerraldian bildu direnek: "Kaleen militarizazioa, doako bortizkeria, probokazioak, autoritarismo esplizitua... Finean, burgesiaren kontrol sozialerako mekanismoen eguneraketaz ari gara".

Zentzu horretan azaldu dute zergatik jazartzen zaien bereziki gogor gazte langileei: "Beldurraren bidez sumisioan hezi nahi gaituzte, hau da, haien behar berriei egokituko zaizkien arauetan diziplinatu nahi gaituzte. Eta, helburu horretan, gazte langileok paper garrantzitsua jokatzen dugu, gu izango baikara sistemaren makineria eusten jarraituko dugunak, eta gaurdanik nahi dute gure papera zein den ongi ikasia izan dezagun".

Horrek guztiak osasun-krisiaren kudeaketaren itxura hartzen badu ere, ezartzen dituzten neurriak eta horien eskutik poliziak egiten dituen esku-hartzeak jarri dituzte jopuntuan: "Gure ustez COVID-19a aitzakia hutsa da, gero eta sakonagoa den krisi sozialak behar dituen baldintza berriak ekoizteko aitzakia ideologikoa".

"Zentzugabea da neurriok larrialdi sanitarioaren logikarekin azaltzea, hau da, osasun-irizpideak ardatz, han hemen orokortzen ari diren praktika autoritarioak ezin dira uler. Adibidez, zer da 01:30ean aldatzen dena, kaleetan jende gutxien dagoen ordua izanik, abereak gidatzeko moduko esku-hartze polizialak beharrezko izateko?", galdegin dute.

ASKATASUN POLITIKOEN DEFENTSA

Prentsurrekoamaitzeko, beste auzi bati ere egin diote azpimarra: "Askatasun politikoen defentsa inoiz baino garrantzitsuago bilakatzen da bizi dugun klase ofentsiba honen aurrean. Indar armatuengaineko ikuskaritza bera ukatua zaigu langileoi. Bideo ziztrin bat ezabatzeko gure mugikorra hackeatzeko arazorik ez dute".

Langileon aurkako jazarpenari aurre egiteko deia luzatuz amaitu dute adierazpena: "Gazte langile, ez zaitez makurtu!".